

TREBAKUNTZA 2020-01: ETA eta EDO. ERABILERA ETA IDAZKERA

Sarritan zalantza izaten dugu honelakoak idazterakoan: *Iñakirekin eta / Iñakirekin-eta* ibili da; *Pellok edo* esango zuen hori / *Pellok-edo* esango zuen hori. Baita ere, zenbakiak idazterakoan *eta* noiz jarri eta noiz ez.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * *Hori dela-eta*, alkateak erabaki du bilera datorren astera atzeratzea.
2. * *Esan didate lagunekin edo* egongo dela pelikula ikusten.
3. * *Haserretu egin zen, lekuz kanpo zegoen eta* zuzendariak emandako erantzuna.
4. * *Hogeita bi hemeretzi irabazi dute gorriek*.
5. * *Zortzi mila seiehun biztanle ditu Ondarroak*.

AZALPENA ETA ZUZENKETAK

Hona hemen Euskaltzaindiaren arauak labur-labur:

1. Juntagailuak osorik idatziko dira beti: *eta*, *edo*.
2. Egitura agerikoa eta antzematen erraza denean, bereiz idatziko da juntagailua — ondoan koma izan edo ez—: *hori eta*, *hori edo*, *hori dela eta*.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

Adibidez: *Trenak ihes egin dio, berandu **ibili da eta**.*
*Ezingo dizut eskura ordaindu, diru barik **nago eta**.*

3. Perpaus konplexua denean, aukeran dago juntagailuaren aurrean marratxoa ipintzea, testua ulertzeko lagungarri irudituz gero (*hori-eta, hori-edo, zer dela-eta*).

Adibidez: *Harrituta zeuden, itsusia **zen-eta** zuk esan zenuen hura.*
*Zuen **liburuak-edo** zeuden hor botata.*

ETA, ZENBAKIAK EMATEAN

1.500, 2.700 eta gisako zenbakiak tradizioan **eta** emendiozkoarekin eman izan dira euskaraz, eta sistema hori da hobestekoa egun ere:

*1.500: **mila eta bostehun**, eta ez *mila bostehun.*
*2.700: **bi mila eta zazpiehun**, eta ez *bi mila zazpiehun.*

Ohitura hori salgaien prezioak eta kirol-proben emaitzak emateko ere gorde da orain arte:

*Kafea **bat eta hoge**i da, eta ez *Kafea bat hoge*i* da.*
*Hiru **eta bat** irabazi du Osasunak, eta ez *Hiru bat irabazi du Osasunak.*

Hona hemen esaldiak, behar bezala idatzita:

1. **Hori dela eta**, alkateak erabaki du Plenoa datorren astera atzeratzea.
2. Esan didate **lagunekin-edo** egongo dela pelikula ikusten.
3. Haserretu egin zen, **lekuz kanpo zegoen-eta** zuzendariak emandako erantzuna.
4. **Hogeita bi eta hemeretzi** irabazi dute gorriek.
5. **Zortzi mila eta seiehun** biztanle ditu Ondarroak.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699